




## Makuesak edo OGOÑOren altzoko biztanleak

Inguruko herri arrantzaleetan elantxobetarrok makuesak izan gara aspalditik. Nondik datozku ezizena? Nork ipini deusku? Horren gainekoa da eskuartearen daukazuen orritxoak. Gure asmoa ez da eztabaidan sartzea, jatorria argitzeko ahalegina egitea baino ez daukagu buruan. Gure ustez egia ez dana, leienda edo ipuin hutsa dana alboratu eta horren gainean herrian eta herritik kanpo entzundakoa bertan aipatzea da. Baita zuen jakin gurea biztu eta horren inguruko ikerketa egiteari sakadatu bat emotea.

### INOIZ EGIN EZ ZAN ESTROPADA

Pasa dan mendeko 1940ko hamarkadan, Bermioko Madalen Eguneko jaia ezaguna egin zan Bizkaiako eta Euskal Herriko leku askotan. Bermioko arrantza motor ugari- udaleko alkate eta zinegotziak eurretan joiazala- itxasora ateratzea erromerian, jaiaren edertasunak, beste inon ez egitea horrelakorik, Izaro irlan egiten zan geldialdia, teila uretara jaurtitzea, bandera ezartzea irlan...Horrek guzti horrek zeresana sortu eban inguruko herrietan eta, egia izan ez arren, ezaguna egin zan eta indarra hartu eban honen kontura (izan leike aurreko mendean be honen inguruko konturen bat izatea, 1884an Yradik egindako marrazkia ikustea baino ez dago) sortu zan kontakizunak. Hain ezaguna egin zan kondaira urteekaz udaletxeetako alkate eta zinegotziek be sinestu egin ebela eta holan gertatu zala esaten ebela. Leiendan denok dakiguna kontatzen zan: behinola (batzuk 1719an izan zala esaten eben) Bermio, Mundaka eta Elantxoberen (Ibarrangelu) arteko liskarra egon zala Izaro zala eta ez zala, eta estropada egitea pentsatu ebela irla norena zan erabagitzeko. Estropadaren irabazlearentzako izango zala Izaro esaten zan. Azkanengo orduan Elantxobek parterik ez hartzea erabagi eban lez, Bermio eta Mundakaren artean egin zala estropada. Traineru bakoitza bere herritik atera zala oilarrak kukurruru egitean eta Elantxobek epaile beharra egin ebela.



Juan Ángel de Yradik 1844an egindako marrazkia

*Handik gora eretxi desberdinak dagoz.:*

- Bermiotarrek, estropadaren bezperan, Mundakako arraunlariak mozkortu egiten dabeze honek dakarren biharamonagaz.
- Bermion suak biztuten dabeze bertako oilarrek goizago esnatu eta kukurruru egiteko Mundakakoek baino arinago. Holan lehenago atera ziran itxasora.
- Mundakak irabazten dau estropada, baina bermiotarren traineruak Izaroko atxen kontra jo eta euren arraunlari bat itto egiten da. Mundakak, gertatutakoa kontuan hartunda, Bermiori emoten deutso estropadaren garaipena. Honetan guztietan Elantxobe, epaile modura, dago tartean beti. Bermiotarren amarruak ez dabezela kontuan hartuten dinok batzuk. Handik aurrera, askoren ustetan, makuesak izango gara (mal juez = mal kuez, makues). Mundakan holan deituten ei doskue eta Bermion be bai. Esan beharrik be ez dago baina Bermion alde jokatu bagendun gatz bermiotarrentzako "mal kuezak" izatea, ezta? Argi dagoena estropada ez zala inoiz egin, inork ez dau topatu estropadaren inguruko barririk ez

Bermion, ez Mundakan, ez Elantxoben, ezta beste inon be. Horregatik ez dogu adituten prentsan eta leku askotan leidu eta entzun izan doguna estropadaz.

**Izaro Bermioren da eta izan da.** 1422ko zezeilaren 27koa da dagoan lehenengo dokumentua. Bertan, Bermioko udalak, frantziskotarrei praileetxea eraikitze baimena emoten deutse Izaro irlako lurreen. Lehenago be, Maria Madalenari egindako baseliza egoan, hortik Madalen Egunean egitea Bermiok jabetzaren aldarrikapena. Izan leike Izaro lazaretxe modura-usteleria, legena edo lepra gaixoak uriguneetatik aldentzeko- erabili izana be, Madalenetxeak horretarako egin ziralako Bilbon, Iruñean, Tuteran eta Gasteizen. Kontuan izan behar dogu XIV. Mendean izurri (epidemia) larriak izan zirela Europa guztian. Dana dala be Izaro irla ez da tokirik egokiena horretarako -ez dago urik ezta lur nahikorik bertatik bizitzeko- baina, akaso, arriskuaren aurrean erabili izan zan nonoiz gaixotasuna ez zabaltzeko beste herritarren artean. Zer ikusi dauka Mundakak arazo honetan? Frantziskotarrak -harik eta 1719an Foruko komentura joateko irlatik alde egin artean- egon ziran bitartean sarriago lihorreratzen ziran Mundakan, Izarotik Bermio baino urrerago dagoalako.

Izaro irlara etorri ziran Espainiako hainbat Errege eta Erregina: Enrique IV.a 1457an, Fernando El Falsario-Nafarroa bereganatzeko Aita Santuaren bulda faltsifikatu ebela ezin dogu ahaztu- 1476an eta bere emaztea, Isabel La Falsaria, 1483an. Ezinezkoa da Elantxobe epaile modura agertzea garai honetan, ezta beranduago, herria be ez zalako izan XIX. mendera arte. Noiz egin zan estropada ba?

**Matematikak ez dau hutsik egiten.** Ez dauka zentzu handirik partaide bakotza bera(re)n herritik ateratzea estropadan: Ibarrangelutik 1350 m dagoz Izarora, Mundakatik 2175 m eta Bermiotik 3000 m ingeru. Orduko bermiotarrek gaur eguneko *Urdaibai* trainerua txiki ixten eben, antza! Elantxobek (Ibarrangeluk) irabazteko aukerarik handiena izanda atzera egitea be!

**Izaroren jabetza aldarrikatze ohitura** aspaldi-aspaldikoa da eta idazki ugari dagoz hori diñoenak. XV. mendetik gora hori frogatzen daben dokumentuak dagoz. Teila botatzen da itxasora Izaro aurrean garagarriaren 22an, Madalena Egunean -"Honaino heltzen dira Bermioko itoginak" - Bermioren babesean geratzen dala irla esateko. Euskal Herrian oso zabaldua egoan ohitura da hau. Bermion gorde egin dabe eta abuztuaren 29n gauza bera egiten dabe Gaztelugatxeraino ailagatzen dala Bermioko teilatuen babesa, eta Bermio bertan amaituten dala aldarrikatze. Antzeko zeozer egiten zan Gernikako Itxasadarrean Santa Maña egunean, garagarriaren 18an, Akordako jaietan. Alde bietako alkateak itxasoratu eta Ibarrangeluko alkateak teila jaurtitzen eban Ibarrangeluko itoginak haraino heltzen ziala erakusteko. Ohitura hau, beste horrelako askoren antzera, aspaldi galdu zan baina beste leku batzuetan be egiten zala esaten deusku.

Amaitzeko esan behar da Bermiok ez leukela Izaroren jabetza galduko, urteren baten, edozein arrazoi dala bitarteko, ezin izango baleu Madalen Eguneko urteroko Izaroratzea eta teila botatzea egin.

### Balego eta balitz alkarren ondoan dabiz: ipotesiak eta usteak



**LEHENENGOA:** elantxobetar batzuren ustez *makoa* (gaztelaniazko "arco" Plácido Mugica Berrondoren hiztegiaren), *maku* guretzako, da makues berbaren jatorria. Ogoñoek egiten dabezen *mako* eta zuloak ete dira?

**BIGARRENA:** Orain dala gitxirarte, holan esan deuskue beti gu baino nagusiagoek, Elantxobeko etxe bakotzak bere lur-saila eukan Ogoño mendian bertatik egurra hartzeko. Etxera egurra ekartzeko astoak beharrezkoak ziran eta herrian asto ugari egoan. Egurra kargatzeko aurreko puntuan aitaturako *makuak*, *arkoak*, erabiltzen ziran. Kanpotik etorritakoek, horrenbeste *maku* ikusita, ipini euskuen ezizena.

**HIRUGARRENA:** Ibarrangelugaz izandako liskar ugariaren baten ibarrangelutarrak orduko epaile edo erregidoreari euren alde ez egitegatik "*mal juez, mal kuez*" esan eutsen eta ezizena elantxobetarroi be geratu jaku.

**LAUGARRENA:** Hasiara baten herrira sartzeko bide bakarra Ibiñatik zan-gero portukoia egin zan, hangoiko bidebarria izan zan azkana-, Bermokizeraino, eta kaltzadatik behera jaisten zan. Handik sartzen ziran baserritarrek bidea astoaren lepo modura ikusten eben, eta Atxurkulu burua eta belarri biak. Lepoaren alde biak *makuak* ipintzeko lekuak ziran-Lastarrira jaisteko aldatza eta Elantxobe- eta bertako biztanleak *makuesak*, makuan bizi ziranak.

**BOSTGARRENA:** Madalen Egunean inguruan asmatutako kondaira dala-ta ipinitako ezizena izatea, beste barik.

**SEIGARRENA:** bermiotarrek "makue" edo makila berezi bat (gaur egun Elantxobeko alkatearen makila) altxatzen dabe Elantxoben Madalena egunean eta hori izan leike "makueza edo makuesa"izenaren esangura.

